

## Joareak

(joare hotza)

E.: joarearen parte desberdinak nola deitzen tuzu zuk?

B.: ara ori xilatia baita, miia xilatia baita, hara hedia pasatia da or xilo ortan, ta gero an barneko garro artan berriz.

E.: lotua.

B.: pasatia, ta gero eta hede ori xilatia da buru batetaik, ta xilo ortaik pasatu, hede mutturra pasatu, ta ze izaritan bear den miia, zartzen duzu eta izarian, ta izarian zartzen delaik, korropilatzen duzu, eta hede ua, eta hedeko xiloain juntaat, ta ordian tinkatu untsa, ta are, gañeateko sobeakina mozten duzu, ta are, zarria, ta ara, orik ere ala-ala ute, ok kusi uzu nola den, bai, oai ez niz leen bezin aisa artzen e, oai anitzek kartzen tuzte mihien zartzeko, bana errain deet biziki fite intzitzie nai bauzie, ni ez nuk aisa ari.

E.: ai izana baitzira zu beaz mihi ezartzen, (...)kin iten dira mihiak.

B.: bai, bai, hook e nik inak dira ba.

E.: nola egiten duzu ori...

B.: o, eta aizkoraikin leenik, haundiena aizkoraikin, ua lanjeosa da iziarri, aizkoraikin, aldi bat ementxe olaxe pikatu nin animaleko sakia, aizkoraekin daxk, ta zonbat aldiz, na gero oai ola, baizu bear da kunkurtuik aizan, hortan ez niz aisa artzen, ba akitzen niz, (hats hotza) ta, ganitaikin ta xilatzen ta oitan (...) aiseo bana, mii zartzen e, eskiak etzu leen bezin adret gero, bear du... Eskiak bear du adret izan, ta leen adreta nin biziki, bana geo oai, hasteko hau, hau ono adretxooño bana, ba.

E.: hedia erosten zinien nubait or?

B.: ba, ba, geo kartzen e dazkiate zonbaitek, ediak.

E.: larruzkoa da hedea?

B.: larruzkoa. Larria, larrua da, larria da ba, a ba.

E.: ta kanpoko... kanpoko estalgia, ori metalez.

B.: a ori tola, ta gero kobria, tola, leenik eta... Baut joaria lana iten e... Kusia ut joalginiak nola iten zuten. Leenik zartzen dute... Leenik forma, leenik juntatzen duzte olaxe zaal-zaala da tola, kusia ut, ta gero biltzen duzte, ta gero hok eta pex... Eta zartzen duzte eta, hunek ez du unek, pexa atzu, alo forma zartze unte arrunt, forma inik, garroak eta denak, ta untsa zarri dutelaik, geo kobre-urian pasatzen duzte, buztinaikin zartzen duzte, uste ut eta ok e joare... Bei joariak asteko ta ok e ba naski, ene uste buztinaaikin, lur buztinaaikin, ta gero kobre-urian

pasten duzte, ta kobre-urian pasatu ta geo martelliaikin iten duzte joiten, soiniaen emaiteko, na badu lan aundia joariak iten e, kusi ut nola in ta... Erte ute joalginek berek e, lan... Lan... Asko badu, e joariak eta egiteko, na ala da ba badu, badu lana e joariak iten.

E.: nun ziren emen joalginak.

B.: leen bazen Baigorriin, ikaraarri una joalgina, eztait niun, ez da re oai alako joalginik niun e, izigarri joare unak iten zitin, ta forma unian ta, iziarri joalgin una, na ila da aspaldi, zautu ut ba nik huna jin ondoan ua, ta manatu re, inaazi re izan dazkot ba ari, urtaazi ta, leheno urtzen zuzten, alo, hurtaazten, kobria arrazartzen berriz berria, berriz kobre... Kobria zartzen, ta untsa zartzen e joariak, hak iten zitin ba.

E.: arreñatzen e ba.

B.: Españan e iten duzte, bana naio ute berria in eta hola geo hurtaazi bano, hurtaaztia erten da ari, oai berriz kobrestatzia bana... Bai huna jin ta beala, nausi zenai erran nakon, bildu nin an etxian, bordan ta bazien ba abandon zienak, joare parrasta at, batzu lodixo, besteak ttipixo ta, eta nausi zenai erran nakon ta, “horik bear dazkotzu man eta Baigorriko joalginai...”, ua zen Donianea jiten zena, asatelen guziz jiten zen, ta “denak soinu berian zar ditzan, joare oriek”, ta ala zarri zitin ba, ta untsa zarri e, untsa, ba.

E.: inaazteko norat joaiten zinen?

B.: a oai inaazteko, geo niaur eta ardiekin plantatu nintzalaik eta, Españan eta, Zubirin inaazi nitin, hamabi joare, hok bano ttipio, ok bano ttipixeot, laburtxo ta, bi kuskula, bideko kuskulak e, ez kontinuo iltzekoak, bi kuskul... Bideko kuskuletaik. Joaretan bada anitz mota!

E.: izen desberdinekin?

B.: bo hok, ok joare luziak dira ok, bideko joareak, joare luziak erten da or, gero au ez da ain luzia, badira ok bano aundigoak e! Aise aundigoak joariak, bidekoak, joare luziak, geo bei joare motxak erten da, hok axui joariak, hor, hau axuri joaria da, ba, bestenez bada anitz mo... Hanitz izari bada, nolakoak nai tzun, nolakoak... Manatzen tzu, kuskulak badira... Badira animaleko kuskulak, bideko kuskulak.

E.: nolakoak dira oriek?

B.: ta kuskul... Hemen, hek badute emen eta, hola eta, baute zo... Ola inguria bar... Hau inguria, dependitzen da ze einetako kuskulak, ttipiak, ttipio ta haundi oriek, eta hau, hau beti, hau hemen bano mearro hau, ta geo garroak e, haundiguak eta, beste gisa at dira kuskulak.

E.: errondak dira ala laukiak? Errondak?

B.: ba hau erronda aitzina, bana hemen erran dauzut, hola beero ta bildio ta gainian e bildio, emen erdian zabalo, kuskulak. Ba, kusi zu kuskula engoitik!

E.: bai, bai.

B.: ta ordian ara, ua.

E.: bazuten beste izenik kuskulek?

B.: e, anitzek tunpa erten dute, tunpa. Luzaiden beti guk leeno tunpa erten giniin, tunpa, hemen kuskula berdin, tunpa re bana kuskula emen, kuskula.

E.: bakarrik bideko oriek, e?

B.: bai, haundi oriek ba, geo badira kontinuokoak ere ttipixeo, continuo iiltzen dienak.

E.: kuskulak deitzen direnak ere?

B.: bai, bai, bai. Bai, bai, bai. Ba, nik e banitin ba, continuoan iiltzen zienak, bana ez aundi oitaik, oriek haundigi dira continuo iiltzeko, alatzeko ta ardia, afrontatzen dute oriek, ez da... Jenatzen dute ardia, aundi oriek, bai, ola da.

E.: ta zeini ezartzen ziniztien zuk joariak?

B.: bo, (...) erten, ardi polliten aire, komunzki, to ortxeko orri beaut zarri baño, ta antxeko ari re beste at, olaxet, kuskulak e, polliten orier ta, olaxet, lepoa re ez du sobera luze, lepolaburra nai du, joariaindako, obeki joiten du joaria, lepolaburra, geo bizitako re ba, pollito da ardi lepolaburra, lepaluze at bano, ez da ain pollita ua.

E.: mendirat joaitia egunaz ala gauaz egiten zinuten?

B.: e emen ni, ba Beauzetik jiten nintzalaik argi gabe partitzen ba, jiten, partitzen, argi bano leentxot, ta ni joan izan niz gau guzia kurri re geo beitikoan, eta bazketaat, gau guzia ta eguna re joana haana, ta atsaldia joana haana, arribatu orduko, etapa bakarra in izan dut nik.

E.: bakarrik?

B.: ez, ez, lagunaaikin, lagunaikin, laguna beauzu, ze gerta re, baizu, oto at sartzen bada edo, etzu bakarrik... Errain dute berdin, baizu, asuantzak e so iten du anitz gauzer, ta biga, beti biga baginen, beti, biga.

E.: baziniina zure gisako fiertasuna ta ola, ardiekin ibiltzian (...) jitian?

B.: ba beti plazer iten du ba, joare ta kuskulak eta, errepika zartzen duzularik ta, bixtan da ori, ori, gustiak iten du ori, ba.

E.: zure artzaingoa utzi duzulaik, bitxi egin dautzu, ez? Nolako...

B.: ez nitin denak kendu, atxiki niin, andanaxka at, ordian, ba, bixtan da, auta saldu nitilaik eta, in zaan ba erregret, bana, bo, bana geo baniin andanaxka at e beti, okupazione... Okupazioniandako, ta ez alako ez gisa artan, ez arrunt ez nitin rau denak kendu, zonbait urtez e atxiki tut, ta beti axuri bakar zonbait hazten nin ta, olaxet.

E.: emeki-emeki utzi duzu, beraz.

B.: bai, emeki-emeki, ba.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala